

Euskal testuen azterketa eta euskararen irakaskuntza. Ikerketa eta gogoetak

Sarrera

Zazpi lan biltzen dira Ikastaria aldizkariaren 14. zenbaki honetan. Ibilbide luzea izan dute lan hauek argitara heldu aurretik. Hemen eta han aurkeztu, eztabaidatu eta osatuak izan dira, haatik uste dugu balio gehitua dutela lan hauek eta uste horretan eskaintzen ditugu. Eskerrik asko lan horretan lagundu duzuen guztioi.

Izaera ezberdina duten arren, denek dute ekarri didaktikoa hizkuntzaren eta bereziki euskararen irakaskuntzarako. Lehendabiziko lanean Luis Mari Larringan eta Itziar Idiazabalek 00-01 eta 01-02 ikasturteetan zehar, Euskal Hizkuntzalaritza eta Filologia Doktorego Programan emandako ikastaroetako emaitzak biltzen dira. Euskararen kalitateaz hainbeste hitz egin eta idazten den honetan, nahi genuen gogoeta sistematikoa egin eta hartarako hizkuntza zientziek ematen dizkiguten baliabideak erabili. Nolabait, gaia intuizio hutsaren eremutik aldentzeko ahalegina egin da. Hizkuntzaren aldakortasuna giza taldeak bideratzen dituen hizkuntza jardunen eraginez gertatzen den bilakaeraren isla da. Eta eragin hori aldiari aldiko eta lekuan lekuko aldaketa formaletan, hizkuntza forma ezberdinetan, gauzatzen da. Baina forma horiek ez ditugu, nolabait esateko, modu aseptiko eta objektiboan eskuratu, baizik eta beti modu irudikatuan, beti ere balorazio batez jantziak gureganatzen ditugu: onak, dotoreak, jatorrak, arruntak, eskasak, mordoiloak, biziak, antigualekoak, gatz eta piperdunak, senak eraginak... Ondorioz, hizkuntzaren, edo erabileraren zuzentasuna/egokitasuna erabakitzerakoan, balio murrizta izango du erreferentzia ziurtzat jo izan den gramatikak, eta kontuan hartu beharko da erabilera bakoitzerako hizkuntza bakoitzak eraiki duen testu moldearen edo ereduaren. Bide honetatik, metodo bat ematen ahalegintzen dira egileak euskararen erabileran gerta daitezkeen gauzatze ezberdinak objektibotasunez aztertzeko.

Aurkezten diren hurrengo lau lanak testuera jakinen gainekoak dira. Diaz de Gereñorena ipuinari lotzen zaio, ahoz kontatutako ipuinari, hain zuzen ere.

Ipuin konta saioen azterketan ohartutakoaren haritik, egilea ipuinak ahoz kontatzeak dituen ezaugarriez eta haien baliabide didaktikoez ari zaigu. Ohiko eskola jarduna dela uste izan arren, aspaldian desitxuratuta eta haur oso txikien eremura murriztua dagoen irudikapena ageri da Diaz de Gereñuk egin duen ikerketan. Hizkuntzarekin jolasteko, gozatzeko eta hizkuntza bera lantzeko baliabide ezin hobea izan daiteke, ordea, eta dohain horiek berreskuratutako aldera ideia interesgarriak ageri dira lan honetan.

Garro eta Idiazabalen lanean debatea da aztertzen den testu generoa. Ahozkoa eta formala, aurreko testuera bezalaxe. Bi ikasle talde alderatzen dira eskolan bideratutako debateetan, eta erabilitako kontu hartze baliabideak aztertzen dira. Alegia, debatean, norberak esan nahi duena bezain garrantzitsua da besteak esan duena kontuan hartzea, bestearekin batera eraikitzen baita jarduna. Eginkizun honek baliabide zehatzak eskatzen ditu eta hauek ikasteko, jardun beharra dago. Ez da nahikoa hitz egiten jakitea. Lan honetan etxetik euskaldunak eta eskolan ikasten ari direnen ekoizpenak alderatzen dira. Interesgarria da batzuen eta besteen gaitasunak eta zailtasunak agerian jartzea. Ondorio didaktiko zehatzak atera daitezke lan honetatik.

García Azkoagaren lanean, iritzizko gutunetako kohesio baliabideak aztertzen dira. Hamabi eta hamalau urteko bi ikasle taldek idatzitako testuotan, gaia aurkeztu eta mantentzeko erabiltzen diren baliabide anaforikoak aztertuiko dira, eta 12tik 14ra doan adin eta ikasketa garapenak nolako eragina duen ikusiko da. Ikasleen gaitasunak ezagutzea ezinbestekoa da irakaskuntza egoki bideratzeko. Jakin behar da, adibidez, eztabaidagaia aipatzen, eta hura berraiatu behar denean, ezaguna edo aipatua bezala aurkezten. Bestalde, testuaren egitura menderatzea ezinbestekoa da edukiaren hurrenkera modu ulergarrian egiteko, eta argudiozko testuan baldin bagaude, arrazoen indarra eraginkorragoa izango da aipamen-berraiapamen jokoan baliabide aproposak erabiltzen badira. Hori guztia, jakina, irakatsi egin daiteke, beraz, lan honetako ekarpenak didaktikan dute aplikazio zuzena.

Bilbao eta Ociok aurkeztutako lanean, 9/10 urteko ikasleen argudio eta narrazio testu idatzien azterketa diskurtsiboa egiten da eta ikasle hauek erakusten dituzten abileziak garatzeko proposamen zehatzak ageri dira azterketaren ondoren. Ikasleen testu idatziak aztertzeko edo ebaluatzeko orduan, gramatika eta ortografia gaindituz nola jokatu erakusten da lan honetan: testuaren ainguraketa eta planifikazioa, gaien eta predikatuen kohesioa, konexioa eta enuntziario jarrera aztertzen da, eta testuera bakoitzeko batez bestekoak eta adibideak ikus ditzakegu. Jakin beharrekoak dira ezaugarri hauek hizkuntzaren irakaskuntza testuetan oinarritu behar dela sinesten baldin bada.

Hurrengo bi lanak izaera ezberdina dute. Nolabait hizkuntzaren izaera soziala eta interaktiboa dute oinarrian baina ez dira testuera zehatz baten eremura mugatzen. Ociok aurkeztzen duen gogoeta guztiz interesgarria iruditzen zaigu edozein hezkuntza sisteman, baina bereziki euskara bezalako egoeran irakasten diren hizkuntzen irakaskuntzan. Kontu ezaguna da edozein gai ikasten dela, gaiarekin batera hartarako erabiltzen den hizkuntza, hizkerak,

hiztegiak, esamoldeak ikasten direla. Alegia, irakasle oro hizkuntza irakasle dela. Halere, hizkuntzakoak ez diren irakasleekin gutxitan egiten da gogoeta haiek hizkuntza gaitasunak garatzen nola lagundu behar duten aztertze aldera. Eta alderantziz, garrantzitsua da, baita ere, aztertzea hizkuntza irakasleak zer izan behar duen kontuan, zer irakatsi behar duen, ikasleak edozein eza gutza eraikitze behar dituen hizkuntza abileziak gara ditzan. Adibidez, testu monologalak –bereziki aurkezpen testuak– eta dialogalak –elkarren arteko solasak– sekuentzia didaktikoetan zehar nola kudeatu adierazten da proposamen zehatz modura. Begoñako Andra Mari Irakasle Eskolan egin den gogoeta ez da eredu txarra edozein eskoletako irakasleen artean, hizkuntzako eta beste gaietako irakasleen artean, antzeko ariketak bultzatzeko.

Arantxa Ugartetxea eta beste zenbait lankidek, nahiko aspaldi, bideratu zuten euskararen irakaste-ikaste esperientzia baten inguruko gogoeta da hurrengo lana. Izenburuak adierazten duen bezala, ikasle eta irakasleen arteko elkarreraginean bideratutako esperientzia dago lan honen atzean. Ezohiko euskaltegi batean, Freireren erakutsiak jarraituz, euskara ikasteak sortutako bizipenak, galderak eta gogoetak agertzen dira esperientziaren lekuko. Lan hau ez da euskara bigarren hizkuntza bezala irakasteko metodologia estandar baten aurkezpena, baina bada euskararen ikas-irakaspen saioetan bizi ohi diren aldeko eta kontrako jarrera eta emozioei beldurrik gabe begiratu eta aurre egiteko talde batek bilatu zituen irtenbideen kontaketa eredugarria. Bereziki oso giro erdaldunean ari diren ikasle eta irakasleen egoerak hobeto ezagutzeko balio digu, eta okerreanean ere alderdi baikorrak aurki daitezkeela erakusten digu ikasle-irakasle talde honek. Testu moldeari begiratuta ere, berezia da lan hau. Badu egunerokoaren kutsu espontaneoak, esku askoren artean egindakoa. Nolabaiteko azpigaien inguruan bildutako gogoetak ageri dira bertan, batzuetan euskaraz, bestetan erdaraz; hizkuntza zuzentasuna ere eztabaidagarria da zenbaitetan, baina dagoen moduan, ibilbidearen leku-kotasuna zuzenago erakusten duelako, bere horretan ematea erabaki digu.

Honenbestez, beraz, pozik gaude ibilbide luze honek, azkenean, lan ezberdinek beren lekua aurkitu dutelako eta plazaratzeko aukera ematen digun *Ikastaria* 14. ale honen aukera ezin hobea ikusten dugulako.

Itziar Idiazabal eta Inés M^a García Azkoaga
Edizioaren Apailatzaileak